

BAYONETA

Tolosaco Napoleonen aurcaco aldizcaria, ó Periódico antinapoleónico de Tolosa

Tolosan inprimatua bere legezco Udal eta Archiboaren babesean,
Eusco Icascuntzaren pribilegioarequin,
Zehazten mercatalecheac, Artem moldizteguian.



Impreso en Tolosa bajo la protección de su legítimo Ayuntamiento y Archivo,
con privilegio de la Sociedad de Estudios Vascos,
por la casa de comercio de Zehazten, en la imprenta de Artem.

1808-co lotacillaren 20-an, Tolosan. Tolosarrac, ciurrenican gogotan izango dituzue oraindic Austerlitz edo Jena becelaco izenac. Acaso 1805 edo 1806-co egun oyc baño lenagoco cenbait ere oroituco dituzue. Baita urrutiagoco toquien izenac! Venecia, Romaña, Egipto... Icen auec, oroiterazotzen dituzte *frantsesen emperadore, Italiaco errege eta Rhin-eco Confederacioco enari* icendatzen den ortec eguindaco garaipen andiac, oraindican gure aliatua dela uste dezuten ortec. Ascoc miretsi degun merecimenduen videz, equersitu ugariten general andia izatera iritsi da artillero ori, Elba edo Danubio becelaco ibai andiac ere ez dira arentzat oztopo izan, ezta Rusiaco, Prusiaco edo Austriaco emperadoreac ere.

Arro izango zerate acaso Europa eta mundu osoa ere arritu duten andiqueria oriengatic egunetic egunera guchituz doacen lagun eta aliatuen artean aurquitzeaz. Edo acaso beldurac bultzatzen zaituzte aoac isstera eta escuac gueldiric izatera, gueienez ucabillac estutuz, zuen eciña eracusteco, equersitu invasore bat dela daquizuten orten aurrean?

Zuen auzoquide naicen onec, ez uste gogor ecaidotu edo juzgatzen zaituztedanic, naiz eta orri clandestino ontan itz latz auec esan. Emendic aurrera guerra irequia deklaratzen diot Buonaparte I-ari, "Europaco tirano" tituloa mereci duen andi-usteari, eta onartzen det neri ere ciria sartu cidala.

Aurtengo orrillan Madrilco guertacarien berriac iritsi cirenean, arazotzalleac aitzazquia-
tu edo culpato nituen. Are gueiago, pensatu nuen azquen uda onetan beren tropac garaitu zituzten erregearen gudarostec, menaldetu edo rebeldez osatuac cirela. Eta gañera joan den garagarrillaren 6-an or, Lizartza aldeco Erregue Bidean, Napoleon I orten buruzaguiac ere banderoec il zutela pensatu nuen, frantsesec ciurtaraci ciguten leguez. Gaur ordea, eguiaren videan darraiquit, oquer orretan seguitutzea eciñezcoa dalaco, eta erregetzen dizuet gauza bera eguin dezazutela. Cer nolaco lagun eta aliatuac dira, fusillac quendu eta oraindic escatzen digutenac gure Arma-olaco bayonetac ere guiltzapean guardatzeco?

Cer pensatu bear degu meachupean ustutzen gaitunaz, gure pentsu, aragui eta oguia eramanez? Galdetu jangarri oyen factore den on Pio de Elizalderi, edo Santiago de Languidarte-ri, zenbat gurin fresco eman bear izan cion casaca urdiñez jantzitaco oyetaco bateri, Tolosaco *comandantea* zela omen zion, au da au! Obe oraindic, galdetu on Joseph Joaquin de Colmenares-eri, 1808-co ilbeltzaren 15-ean aurqueztu zuen zor-aguirian, cenbat costa diren "Imperioco mariscal" deitzen den *monsieur Moncey* delacoari emandaco oturuntzac. Oi besteren zurrian jatea! Bai al daquizute gure contura combat dultze-ontzi, almendra, anis, ogui frantses, chaal oquel, vizcocho, bolado, chorizo, bissigu, cherri guerruntza, uso, chiquito eta bestelaco ardo, cafe eta pachar irentsi cituen? Cer esan bear degu orrelaco combidatuez eta orduzquero eguin dizquiguten ordañez?

Oraindic guiltzapetu gabe dagoen eta guiltzapetuco ez duten beste bayoneta onen jabea naizen onec arguituco dizue. Barbaroac eta bandaloac! lapurrac eta arpillatzaileac dira. Orda orren buru den Buonaparte I-ac berac ederqui azaldu zuen bere izaquera, azquen udazquen onetan, Tolosan bertan, Urbietta echean eguin cenioten egundoco arrera artan, aliatuac ez baño esclavoen modura, nola lapurtu zuen, batere lotsic gabe, on Jose Maria Carrese-
c utzitaco batresna.

Tolosarrac, ez gueyago onartu gueyeguiqueria auec! Jaquin dezazute, alchatzen ari dirrela lecu ascotan equersitu eta guizon ausartac, esclavoec ere onartuco ez zituzten guertaera lotsagarri auen aurrean! Entzuten badezute Buonaparte I Tiranoaren indarrac garaitu dituela Espinosa de los Monteros-en edo Tuteran, faltsua dela diotsuet, ez sinistu eta utzi bazterrera labainqueta engañoso oyc!

Obe da oorez iltzea centurioi crudel auec jasatea baño.

Gaurcoz banoa, bañan laster vuelatuco naiz, gure aliatu falsuec ezcutatzen dizquizuten guertaerac contatzera eta Tirania orten mepetic ascatzeco oroiterazotzera, Cantabriar zaarren ondorengo duinac baiguera.

En Tolosa, a 20 de Diciembre de 1808. Tolosarrac, es seguro que hoy aún resuenan en vuestra memoria los nombres de Austerlitz o de Jena. Incluso puede que aún recordéis otros anteriores a esos días del 1805 o del 1806. Nombres incluso de lugares lejanos, de Venecia, de la Romaña, de El Egipto. Todos ellos rememoran grandes hechos de armas de ese que se hace llamar *emperador de los franceses, rey de Italia y protector de la Confederación del Rhin* y que acaso aún creéis nuestro aliado. Ese artillero que, sólo por la virtud de un mérito que muchos admiramos, ha llegado de simple teniente a general de numerosos ejércitos y a cuyo paso no se han resistido ni grandes ríos como el Elba o el Danubio ni menos emperadores como el de la Rusia, el prusiano o el austriaco.

Acaso por esas grandezas, que han asombrado a la Europa toda y aún al Mundo entero os sentiréis orgullosos de contaros entre sus cada día más escasos amigos y aliados. ¿O tal vez es sólo el temor el que os obliga a mantener vuestras bocas cerradas y vuestras manos quietas o, como mucho, apretadas en un puño que sólo significa vuestra impotencia ante lo que ya sabéis bien es sólo un ejército invasor?

No creáis que os juzgo duramente si yo, vuestro convecino, os dirijo a través de esta hoja clandestina, estas palabras ásperas. Reconozco que yo mismo, que desde ahora mismo declaro la guerra abierta a ese fantoche, a ese Bonaparte I que, en verdad, sólo merece el título de "tirano de la Europa", también me dejé embaucar por él.

Cuando llegaron noticias de lo ocurrido en Madrid en mayo de este año lo achaqué todo a un populacho soliviantado. Incluso creí que las tropas del rey que se enfrentaron y derrotaron a las suyas en Bailén este último verano eran desertores y rebeldes, o que la muerte de uno de los edecanes de este Napoleón I, ocurrida el 6 de junio de este año cerca de nuestra villa, en la parte del Camino Real que tira para Lizarza, había sido cosa de bandideros, como los propios franceses aseguraron. Pero me es imposible, a fecha de hoy, perdurar en ese error y os encarezco otro tanto a todos vosotros. ¿Qué clase de amigos y aliados son estos que nos quitan nuestros fusiles y aún reclaman que las bayonetas de nuestra

Fábrica de Armas sean guardadas bajo llave?. ¿Qué debemos pensar de quienes nos esquilman con amenazas llevándose nuestro pienso, nuestra carne, nuestro pan?. Preguntad al factor de esos víveres, don Pío de Elizalde, o a Santiago de Languidarte sobre toda la mantequilla fresca que tuvo que dar a uno de estos señores de casaca azul que decía ser -
graciosa novedad!- nada menos que "el comandante" de Tolosa. O mejor preguntad a nuestro vecino, al excelente don Joseph Joaquín de Colmenares, acerca de a cuánto ascendieron los gastos presentados el 15 de enero de 1808 por el banquete que se dio a un tal *monsieur Moncey* que se hace llamar "mariscal del Imperio". ¿Sabéis el número de tarros de dulce, almendras, anises, pan francés, carne de ternera, bizcochos, bolaos, chorizos, besugos, lomos de cerdo, pichones, vino chiquito, y de otras clases, café y licores que este señor mariscal comió y bebió a nuestra cuenta?. ¿Qué decir de semejantes invitados y del pago que desde entonces nos han dado?

Yo, el dueño de esta otra bayoneta que aún no han encerrado, ni jamás encerrarán, os lo diré. Son bárbaros y vándalos, ladrones y saqueadores, como bien lo mostró el jefe de esta horda, el propio Bonaparte I, cuan-

do amablemente lo agasajasteis este mismo otoño por mano, cómo no, de Ana María de Acha, en nuestra misma villa de Tolosa, en la casa de Urbietta, y no tuvo vergüenza en robar hasta la vajilla cedida por don José María Carrese en la que le servimos más como esclavos que como aliados.

¡Tolosarrac, no soportéis ni un día, ni una hora más, tales abusos!. Sabed que por doquier se levantan en armas ejércitos y hombres valientes dispuestos a sacudir ese yugo que avergonzaría hasta al más vil de los esclavos!. Si oís que han sido derrotados por las fuerzas de este Tirano Bonaparte I, como dicen que ocurrió en Espinosa de los Monteros o en Tudela, no lo creáis o haced caso omiso de tales noticias!

Es mejor caer en los campos del honor que soportar a estos crueles centuriones.

Os dejo por hoy, pero volveré pronto para recordaros lo que ocurre en estos días aciagos -lo mismo que esos falsos aliados os ocultan- y cuál es nuestro deber de liberarnos de esa Tiranía, como dignos descendientes de los antiguos Cántabros que somos.



Tirano lapurra • Tirano y ladrón